OÑATI
dabilen herria

OÑATIKO UDALA
IDAZKARITZA
DATA 2026 AZA 03
ALKATE DEKRETUEN LIBURUA
ZKIA. 1788

ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

Zerbitzuen arduradun (A2) lanposturako bitarteko funtzionario bat kontratatzeko oinarrien aldaketak onartzea (2026ABFI0024)

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

"Udaleko GIZA BALIABIDE ETA ANTOLAKETA teknikaria naizen honek honako txostena eman dut:

Espediente zk.: 2026ABFI0024
Interesduna: Oñatiko Udala
Gaia: Zerbitzuen arduradun (A2) lanposturako bitarteko funtzionario bat kontratatzeko oinarrien aldaketak onartzea

Gertakariak:

Lehenengoa.- 2026ko urriaren 15eko 1693 zkidun Alkate Dekretuan, Oñatiko Udaleko zerbitzuburu (A2) lanpostua behin behinekoz beteko duen langile bat kontratatzeko oinarriak argitaratu ziren. Oñatiko Udalean zein inguruko beste administrazioetan profil horretako hautagaien lanpoltsarik ez dagoenez, Lanbidera jo zen lanpostua behin betikoz bete artean eginkizun horiek beteko dituen langile bat kontratatzeko. Oñatiko Lan Postuen Zerrendan (LPZ) jasotzen den eran, zerbitzuen arduradun lanpostuak euskarako 4HE du; eta profil hori betetzen duen hautagai bakarra aurkeztu den arren, ez du lan eskaintza onartu. Horrez gain, 11/2022 Euskal Enplegu Publikoaren Legeak ezartzen dituen baldintzak direla-eta, argitaratuta oinarrietan aldaketa batzuk egin behar direla somatu da. Horrenbestez, Oñatiko Udalak aipatutako Alkate Dekretuan jasotako oinarriak aldatzeko erabakia hartu du.

Gertakarien balorazioa:

Abenduaren 1eko 11/2022 Euskal Enplegu Publikoaren Legeak ezarritako baldintzak kontutan hartuz, ondorengoa proposatzen da:

Lehenengoa.- Hautaketa-prozesuak bi fase izango ditu:

a) Lehen fasea: merezimenduen eta lanbide-esperientziaren balorazioa
Aurkeztutako merezimenduak eta lan-esperientzia baloratuko dira, oinarri hauen hurrengo puntuan ezarritako baremoaren arabera.

b) Bigarren fasea: elkarrizketa pertsonala (baztertzailea eta nahitaezkoa)

ZIRRIBORROA - BORRADOR

Elkarrizketara deituko dira oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituzten hautagai guztiak. Elkarrizketaren helburua izango da hautagaien egokitasuna modu objektiboan baloratzea (gaitasun profesionalak, hizkuntzaren erabilera...).

c) Azken puntuazioa

Azken puntuazioa bi faseetan lortutako puntuazioen batura izango da, eta hurrenkera horren arabera izendatuko da behin behinekoz lanpostu hori beteko duen funtzionarioa.

*Hautagai guztiak elkarrizketak egitera deituak izango dira, eta ondorioz, elkarrizketara aurkeztu ez diren hautagaiak zerrendatik kanpo utziko dira zuzenean.

Bigarrena.- Hautagaiak hautatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Merezimenduak (5 puntutik)

1.1. Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak (2 puntu).

- Lanpostuaren eginkizunekin lotutako gaietan zerikusi zuzena dutenak. Gehienez ere 5 puntu arte baloratuko dira. Balorazio horretarako orduak hartuko dira kontuan eta 0,05 koefizienteaz biderkatuko dira, ikastaro desberdin bakoitzeko puntu 1era arte asko jota, betiere merezimenduen atal orokor honetan lor daitekeen gehienezko aipatu mugaren barruan. Horretarako, hautagaiak aurkeztutako dokumentazioan ikastaroaren iraupena (ordu-kopurua) zehaztu beharko da. Ez dira baloratuko ordu-kopurua zehazten ez duten ikastaroak. Soilik hartuko dira kontuan oinarriak argitaratu baino 10 urte lehenagoko ikastaro-tituluak. Gainera, ikastaro bakoitzeko gehienez 0,5 puntu aitortuko dira.

1.2 Titulu akademiko ofizialak (3 puntu).

Deialdian parte hartzeko beharrezkoa denaz bestelako tituluak, bai eta masterrak, diplomak eta unibertsitateen berezko tituluak ere, betiere erabilgarriak badira deitutako lanpostuan aritzeko. Epaimahaiak baloratuko ditu egokiak diren edo ez, baita beroriei eman beharreko puntuak ere, baina ezin izango du, inolaz ere, 2 puntu baino gehiago eman goragoko titulu bakoitzeko eta puntu 1 maila bereko titulu bakoitzeko.

- Eskatzen dena baino goragoko tituluak (2 puntu bakoitzeko).
- Maila bereko tituluak (puntu 1 bakoitzeko).

2. Lanbide-esperientzia (gehienez 10 puntu)

- 0,40 puntu Herri Administrazioan eskainitako hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokide diren eginkizunetan (A2 edo goragoko sailkapen-taldea), lan-zerbitzuan jartzen duenaren arabera.
- Herri-administrazioan lanean aritutako azpitaldea edo/eta lanpostu/saila desberdina denean hemen deitutakoarekiko, 0,10 hilabete oso bakoitzeko.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

- 0,20 puntu sozietate publikoetan edo sektore pribatuan eskainitako zerbitzuen hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokidetzat jotzen diren eginkizunetan.
- Sozietate publikoetan edo sektore pribatuan antzeko edo zerikusia izan dezaketen lanetan eskainitako zerbitzuen hilabete oso bakoitzeko, 0,05 hilabete oso bakoitzeko.

** Oñatiko Udalak esperientzia eta formazioa ziurtatzeko eska dezake.*

3. **Aurrez aurreko elkarrizketa** (gehienez 35 puntu). Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Elkarrizketan, **hiru atal** ebaluatuko dira:

3.1. Euskara (gehienez, 5 puntu)

Irizpidea	**Gehieneko puntuazioa**
1. Informazioa argi, zehatz eta modu antolatuan transmititzea	2 puntu
2. Solaskidearen beharretara eta komunikazio-egoerara egokitzea	1,5 puntu
3. Laneko egoeretan ahozko komunikazioa eraginkortasunez gauzatzea	1,5 puntu
Guztira	5 puntu

3.2. Gaitasuna (20 puntu)

Hautagaiek eskaintzen den lanposturako gaitasuna duten neurtzeko galdera edota probak egingo dira; hauek aurrez ezarritako irizpide kalifikatzaileekin neurtuko direlarik.

3.3. Nortasuna (10 puntu)

Hautagaiek eskaintzen den lanposturako profil egokia duten neurtzeko galdera edota probak egingo dira; hauek aurrez ezarritako irizpide kalifikatzaileekin neurtuko direlarik.

*Hautaketa prozesuan aurrera egin izateko, elkarrizketako hiru atalak gainditu beharko dira; eta gainditzen ez duten hautagaiak, zuzenean hautaketa prozesutik kanporatuak izango dira. Elkarrizketa hauek araroaren 4 eta 5ean egingo dira.

Epaimahai kalifikatzailea Pertsonal eta Barne-antolaketako arduradunak eta teknikariak, Lurralde Antolaketako teknikariak eta euskara teknikariak osatuko dute.

Proposamena:

Lehenengoa.- 2026ko urriaren 15eko 1693 zkidun Alkate Dekretuan, Oñatiko Udaleko zerbitzuburu (A2) lanpostua behin behinekoz beteko duen langile bat kontratatzeko oinarriak jasotzen zituen ebazpenean, jasotako oinarrien aldaketa egitea. Aldaketa horiek abenduaren

ZIRRIBORROA - BORRADOR

OÑATI
dabilen herria

1eko 11/2022 Euskal Enplegu Publikoaren Legeak ezarritako baldintzak kontutan hartuz egin dira, berdintasun printzipioak betez eta langile publikoen hautaketa prozesuetan kontutan izan beharreko legezko bete beharrak errespetatuz.

Bigarrena.- Erabaki hau interesdunei, Lurralde Antolaketa sailari eta Giza Baliabide eta Antolaketa Sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan."

Horregatik guztiagatik, teknikariaren balorazioa eta proposamena ikusirik, nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizen honek, erabakitzen dut:

Lehenengoa.-. Lehenengoa.- 2026ko urriaren 15eko 1693 zkidun Alkate Dekretuan, Oñatiko Udaleko zerbitzuburu (A2) lanpostua behin behinekoz beteko duen langile bat kontratatzeko oinarriak jasotzen zituen ebazpenean, jasotako oinarrien aldaketa egitea. Aldaketa horiek abenduaren 1eko 11/2022 Euskal Enplegu Publikoaren Legeak ezarritako baldintzak kontutan hartuz egin dira, berdintasun printzipioak betez eta langile publikoen hautaketa prozesuetan kontutan izan beharreko legezko bete beharrak errespetatuz.

Bigarrena.- Erabaki hau interesdunei, Lurralde Antolaketa sailari eta Giza Baliabide eta Antolaketa Sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan."

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2026ko azaroaren 2an

Alkatea

OÑATIKO UDALA

Izaro Elorza Arregui

Oñatiko Udala
Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati
tel: +34 943 78 04 11 • **oñati.eus**

OÑATIKO
UDALA

EKS | CSV: ZIRRIBORROA - BORRADOR
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910